

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Tokiko Zuzenbidearen Euskal Behatokiaren Buletin Digitala

Tokiko Zuzenbidearen

Euskal Mintegia

EUDEL/IVAP

14.05.21

Castellano

ARAUGINTZA PROIEKTUAK

Hornitzaileei Egin Beharreko Ordainketak Finantzatzeko Funtsa aldatzeko lege-proiektua

Proiektua Ogasun eta Herri Administrazioen Batzordean izapidetzen ari da, legegintzako eskumen osoz eta urgentziako prozeduraren bidez. Zuzenketak aurkezteko epea 2014ko maiatzaren 17an amaituko da.

Proiektuaren testua

Alderdi politikoaren jardura ekonomiko-finantzarioa kontrolatzeko lege organikoaren proiektua

Proiektua Erakunde Batzordean izapidetzen ari da. Zuzenketak aurkezteko epea 2014ko maiatzaren 13ra arte luzatu da.

Kongresuko azken agerraldiak (2014ko apirilaren 28a):

- Fernando Conde jauna, soziologoa, CIMOP Merkatuen eta Iritzi Publikoaren Ikerketarako Institutuko zuzendaria;
- Miguel Ongil jauna, ekonomia-analista, Zer egin behar dugu alderdi politikoaren finantzazioarekin? (¿Qué hacemos con la financiación de los partidos?) liburuaren egileetako bat eta Cuentas Claras taldeko kidea;
- Rafael Ortiz Cervelló jauna, abokatua, Garrigues-eko Bartzelonako Lan Saileko arduraduna;

- Miguel Presno Linera jauna, Oviedoko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasle titularra;

- Eloy García López jauna, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna.

Agerraldiak

Goi-kargudunek Estatuko Administrazio Orokorrean duten jardura arautzen duen Lege-proiektua

Proiektua Erakunde Batzordean izapidetzen da. Zuzenketak proposatzeko epea 2014ko martxoaren 13ra arte luzatu da.

- Andrés Betancor Rodríguez jauna, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedraduna;

- Marcos Vaquer Caballería, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedraduna;

- Agustín Cerrillo i Martínez jauna, Universitat Oberta de Catalunya unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedraduna, Zuzenbide eta Zientzia Politikoko Ikasketetan.

Agerraldiak

Sektore publikoa arrazionalizatzeari eta eraberritze administratiborako beste neurri batzuei buruzko Lege-proiektua

Proiektua Ogasun eta Herri Administrazioen Batzordean izapidetzen ari da. Aurkeztutako zuzenketen testua 2014ko maiatzaren 7an argitaratu da.

Zuzenketen testua

Beste dokumentu
interesgarri batzuk

Erreformen Programa Nazionala eta 2014-2017 aldirako Egonkortasun Programa Nazionalaren eguneraketa.

Apirilaren 30eko Ministroen Kontseiluak 2014-2017 aldirako Egonkortasun Programa eta 2014ko Erreformen Programa Nazionala onartu zituen. Biak Europako Batzordera bidali dira.

Gobernuak hiru hamarren hobetu du defizit publikoaren 2014rako helburua: PBGaren % 5,8tik % 5,5era murriztu da. Egoera makroekonomikoari dagokionez, hazkunde mailakatua aurreikusi da, eta 2017an % 3ra iritsiko gara. 2015eko amaieran,

langabezia-tasa 2011ko amaieran baino txikiagoa izango da.

2014ko Erreformen Programa Nazionala 2014-2017 aldirako Egonkortasun Programa Nazionalaren eguneraketa.

Doktrina-azterlanak

Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen eta lege autonomiko baten arteko kontraesana dagoenean: zer lege aplikatu behar du udalak? (Cuando hay contradicción entre la LRSAL y una ley autonómica: ¿qué ley debe aplicar un ayuntamiento?). Francisco Velasco Caballero, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Tokiko Zuzenbideko Institutukoa (TZI) (TZIaren blogean argitaratua).

Merkatu-batasuna bermatzeko legearen inguruan, (Sobre la Ley de garantía de unidad del Mercado). (Hemen argitaratua: La administración al día, INAP, 2014ko apirilak 30).

2013ko balantzea

Tokiko Berrikuntza Agendak

Tokiko Berrikuntza Agendak bultzatzeko 2013ko prozesuaren inguruan egindako ebaluazioaren emaitzak eta ondorioak. 2013an bultzatutako 8 agendek **35 proiektu** gehitu dituzte, hau da, **batez beste 4,4 proiektu** agenda bakoitzeko.

Proiektu-kopuru handiena kudeaketa-sistematikak ezartzea helburu dutenei dagokie (11 proiektu); ondoren datoz **prozesuak sinplifikatu eta kudeatzera** bideratutakoak (10 proiektu) eta herritarrentzako arreta hobetzekoak (4 proiektu).

122 pertsonak parte hartu dute; horietatik 21 profil politikokoak dira, 99 profil teknikokoak eta azkenik, sozietate publikoetatik zerbitzua ematen duten 2 pertsona aritu dira. **Batez beste, 15 pertsonak parte hartu dute agenda bakoitzeko.**

Prozesuaren iraupena (3 hilabete) «nahiko motza» izan dela iritzi diote parte hartu duten udalek.

Itxaropenen betetze-maila altua izan da. Parte hartu duten udal **guztiek** TBA baliagarria dela uste dute, eta gainerakoei gomendatzen diote.

Informazio gehiago

Deskargatu txostena

- Tokiko erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak ezartzen dituen agindu-proiektua eta arau-eragina aztertzeko memoria. [Agindu-proiektuaren testua](#)

- Tokiko erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak ezartzen dituen aginduaren arau-eragina aztertzeko memoria. [Memoriaren testua](#)

- Aragoiko Gobernuko Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiaren 1/2014 Zirkularra, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ostean (toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea aldatzen duena) Aragoiko udalerriek duten araubide juridiko eta eskumenekoari buruz. [Zirkularraren testua.](#)

- 2014/04/06ko zirriborroa: Lege-dekretua, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea aplikatzeko premiazko neurriak ezartzen dituena. [Zirriborroaren testua.](#)

Lege-proiektua, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartzearen ondoriozko premiazko neurriei buruz. Galiziako Xunta. (BOPG, 260 zk., 2014ko martxoaren 25ekoa). [Proiektuaren testua.](#)

- Azalpen-oharra, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen zenbait alderdi Katalunian aplikatzearen inguruan. Kataluniako Generalitatea. [Azalpen-oharra.](#)

XEDAPEN ARAUZAILEAK



Estatuko legedia

Apirilaren 4ko 5/2014 Errege Lege Dekretua, enplegu publikoko eskaintza ezohikoa eta gehigarria aurreikusten duena, zerga-iruzurraren aurkako borroka bultzatzeko. (BOE, 83 zk., 2014ko apirilaren 5ekoa).

Apirilaren 22ko 8/2014 Legea, Espainiako ekonomia nazioartekotzeak eragindako arriskuak Estatuak gain hartzeari buruz. (BOE, 98 zk., 2014ko apirilaren 23koa).

Apirilaren 21eko 7/2014 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duena. (BOE, 97 zk., 2014ko apirilaren 22koa).

Martxoaren 27ko 3/2014 Legea, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testu bategina eta beste lege osagarri batzuk aldatzen dituena. (BOE, 76 zk., 2014ko martxoaren 28koa).

Martxoaren 14ko HAP/419/2014 Agindua, toki-erakundeen aurrekontuen egitura onartzen duen EHA/3565/2008 Agindua, abenduaren 3koa, aldatzen duena. (BOE, 67 zk., 2014ko martxoaren 19koa).



Euskal Autonomia Erkidegoa

AGINDUA, 2014ko apirilaren 9koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Horren bidez, 2014ko ekitaldirako, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan jasotako berriazko gastu bakoitzarentzako gehieneko zenbatekoak finkatzen dira, horiei aurre egiteko esleitutako kredituak banatzeko irizpideak adierazten dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2014an dagokion aurrekontu-muga ezartzen da. (EHAA, 71 zk., 2014ko apirilaren 11koa).



Arabakia Lurralde Historiakoa

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 1eko 19/2014 Foru Dekretua, zeinaren bidez onartzen baitira hirigintza planeamenduko tresnak eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren (IEE) prozedurako dokumentuak –edo, hala badagokio, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren (IEBE) azterlanenak– idazteagatik ordaindu behar diren ordainsariak finantzatzeko diru-laguntzen 2014ko deialdia eta oinarri arautzaileak. (ALHAO, 42 zk., 2014ko apirilaren 11koa).

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 15eko 219/2014 Erabakia; horren bidez onartu dira 2014ko estatu-laguntza gisa tokiko erakunde bakoitzari dagozkion partaidetzak eta 2013ko likidazioan horiek aplikatzeko modua. (ALHAO, 47 zk., 2014ko apirilaren 30koa).

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 15eko 218/2014 Erabakia; onartzen duena Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean Arabako toki erakundeek 2014ko ekitaldirako izango duten hasierako partaidetza behin betikoen banaketa, eta ordaintzen diena kuadrillei eta udalei 2.

hiruhilekoko partaidetzen ordainketa. (ALHAO, 47 zk., 2014ko apirilaren 30ekoa).

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 8ko 203/2014 Erabakia; apirilaren 8koa, onartzen dituen toki erakundeentzat abenduaren 27ko 34/2013 Foru Aginduak onartu zuen ezohiko ekarpenaren 2014rako eta 2015erako partaidetzak, eta 2014ko lehenengo ordainketa egiten diena kuadrillei, udalei eta kontzejuei. (ALHAO, 44 zk., 2014ko apirilaren 16koa).

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 25eko 173/2014 Erabakia; horren bidez onartu da Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean Arabako toki-erakundeak dituzten partaidetzen banaketa, 2013ko likidazioari dagokiona. (ALHAO, 39 zk., 2014ko apirilaren 4koa).

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 25eko 158/2014 Erabakia; horren bidez onartu da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion probintziako eta estatuko 2013ko kuoten banaketa, euskal lurralde historiko horretako udalen artean. (ALHAO, 39 zk., 2014ko apirilaren 4koa). (EHAA, 71 zk., 2014ko apirilaren 11koa).



Bizkaiko Lurralde Historikoa

1/2014 FORU LEGEA, martxoaren 26koa, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak 2014ko urtarrilaren 16an hartutako lehenengo akordioa berresteko dena. (BAO, 64 zk., 2014ko apirilaren 2koa).

Gipuzkoako
Aldizkari Ofiziala

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea bultzatzeko Programaren 2014ko deialdia. (GAO, 84 zk., 2014ko maiatzaren 7koa).

2014ko lehiaketa arrunterako deialdia, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko. (GAO, 81 zk., 2014ko maiatzaren 2koa).

Apirilaren 14ko 7/2014 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua aldatzen duena. (NAO, 81 zk., 2014ko apirilaren 28koa).

BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN TOKIEREMUARI BURUZKO LEGEDIA

ANDALUZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOIA

- **Apirilaren 22ko 5/2014 Lege Dekretua**, enpresek dituzten administrazio-oztopoak murrizteko neurri arautzailei buruzkoa. (BOJA, 82 zk., 2014ko apirilaren 30koa).

KATALUNIAKO GENERALITATEA

- **Apirilaren 8ko 5/2014 Legea**, Kataluniako Toki Kooperaziorako Funtsetan inguruko 2013 eta 2014rako neurrii buruzkoa. (DOGC, 6602 zk., 2014ko apirilaren 11koa).

GAZTELA ETA LEONGO AUTONOMIA ERKIDEGOIA

- **Martxoaren 27ko 1/2014 Lege Dekretua**, Gaztela eta Leongo zerbitzu publikoak bermatu eta jarraitutasuna emateko premiazko neurrii buruzkoa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartzearen ondorioz. (BOCyL, 62 zk., 2014ko martxoaren 31koa).

EXTREMADURAKO AUTONOMIA ERKIDEGOIA

- **Apirilaren 22ko 1/2014 Lege Dekretua**, Extremadurako Ogasun Publikoaren 5/2007 Lege Orokorra, apirilaren 19koa, aldatzen duena. (DOE, 77 zk., 2014ko apirilaren 23koa).

ASTURIASKO PRINTZERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOIA

- **Asturiasko Printzerriaren apirilaren 25eko 2/2014 Legea**, aurreko ekitaldietako defizit publikoak eragindako finantzazio-beharren ondoriozko zorpetzea baimentzekoa. (BOPA, 98 zk., 2014ko apirilaren 29koa).

- **Asturiasko Printzerriaren apirilaren 14ko 1/2014 Legea**, ura erabiltzearen ondoriozko ingurumen-eraginen gaineko zergari buruzkoa (BOPA, 92 zk., 2014ko apirilaren 22koa).

JURISPRUDENTZIA

Konstituzio Auzitegia

42/2014 KAE, 2014ko martxoaren 25ekoa. Osoko bilkura. Autonomia-xedapenen aurka egitea, 1389-2013. Estatuko gobernuak egindako aurkapena, Kataluniako Parlamentuaren 2013ko urtarrilaren 23ko 5/X Ebazpenaren inguruan, zeinaren bidez Kataluniako herriaren subiranotasun-adierazpena eta erabakitzeko eskubidea onartzen baitira. Subiranotasunaren titulartasuna, Espainiako batasunaren printzipioa eta Konstituzioaren nagusitasuna: aurka egindako ebazpenaren izaera juridikoa, Kataluniako herriari esleitutako subjektu politiko eta juridiko subiranoaren izaera

deuseztatzea eta ebazpenean «erabakitzeko eskubidearen» inguruan egiten diren erreferentzien aldeko interpretazioa.

37/2014 KAE, 2014ko martxoaren 11koa. Osoko bilkura. Tokiko autonomia defendatzeko gatazka, 8317-2005. Gomecelloko Udalak planteatutakoa da, Gaztela eta Leongo Gorteen maiatzaren 26ko 6/2005 Legearekin lotuta, Gomecello herrian (Salamanca) Salamancako probintziako hiri-hondakinak tratatzeko zentro bat instalatzeko eskualde-proiektuaren adierazpenaren ingurukoa dena. Tokiko autonomia: autonomia-mailako lege-manuen konstituzionaltasuna, zeinen hirigintza-zehaztapenak udal-plangintzako tresnen gaineratik baitaude (129/2013 KAE).

Auzitegi Gorena

1301/2014 AGE, 2014ko martxoaren 14koa. Bosgarren atala. Arabako Foru Aldundiaren 217/2009 Foru Agindua, maiatzaren 5ekoa, urtarrilaren 23ko 13/2009 Foru Aginduaren aurkako errekerimendua ezesten duena (horren bidez, behin betiko onartzen da Lantarongo 1. sektoreko –SUI 2– Plan Partzialaren bosgarren aldaketa).

TOKIKO ESPARRUA EUROPAN



Europako toki- eta eskualde-administrazioen adierazpena

Europako Udalen eta Eskualdeen Kontseiluak (CMRE) adierazpen bat plazaratu du Europako Parlamenturako hurrengo hauteskundeen harira. Bertan zenbait lehentasunezko arlori buruzko hamar ardatz estrategiko jasotzen dira, Europako erakundeen eta lurralde-erakundeen arteko lankidetzeta hobetzeko.

Dokumentuan tokiko eta eskualdeetako gobernuen gaur egungo erronkak jorratu dituzte, hala nola enplegua, gizarte-lehentasunak, berdintasuna, zerbitzu publikoak eta kohesioa.

[Informazio gehiago](#)



Eskualdeetako Lantaldeak Maila Anitzeko Gobernantzaren Europako Gutuna onartu du

Apirilaren 3an, Eskualdeetako Lantaldeak Maila Anitzeko Gobernantzaren Europako Gutuna onartu zuen. Europar Batasunak politika-ziklo berri bati eta

Europako politika garrantzitsuenak programatzeko aldi berri bati ekingo dio laster; hori dela eta, Eskualdeetako Lantaldeak herritarrei gogorarazi nahi die nahikoa dela eskualdeek eta hiriek partaidetza handiagoa izatea politikak egiteko lanean, EBko politiken aplikazioa eta ebaluazioa arrakastatsuak izateko.

[Informazio gehiago](#)



Estatuko laguntzei buruzko EBren arau berriek energia berriztagarriekiko konpromisoa zalantzan jar lezakete.

Europako toki- eta eskualde-erakundeen aburuz, estatuko laguntzei buruzko arau berriek energia berdea sustatu behar dute, eta aukera eman behar diete gobernuei energia berriztagarriak diruz laguntzen jarraitzeko.

[Informazio gehiago](#)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 2014/55/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari lotutako fakturazio elektronikoari buruzkoa. (EBAO, L 133 zk., 2014ko maiatzaren 6koa).

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentaraua, emakida-kontratuen esleipenari buruzkoa. (EBAO, L 94 zk., 2014ko martxoaren 28koa).

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. (EBAO, L 94 zk., 2014ko martxoaren 28koa).

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen sektorean diharduten erakundeen kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. (EBAO, L 94 zk., 2014ko martxoaren 28koa).

ARGITALPENAK

Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen inguruko vademecuma.



Bere aplikazioari buruzko 100 galdera (Vademécum sobre la Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local. 100 cuestiones en relación a su aplicación)

Rafael Jiménez Asensio

Kataluniako Udalerrien Federazioa, 2014

[Deskargatu
sarrera-azterlana](#)




Situación económica 2014
(2014ko egoera ekonomikoa)
UDALA aldizkaria

154 zk., 2014ko apirila

Euskal Udalen Elkartearen (EUDEL) Aldizkaria

[Deskargatu](#)



Euskadiko zinegotziaren 2014ko eskuliburua
2013ko toki-erreformara egokitua
(Manual del Concejal en el País Vasco 2014.
Adaptado a la reforma Local 2013).

Egileak: Laura Arana Aguirre

Ángel Zurita Laguna

Fundación Popular de Estudios Vascos, 2014

[Ikus aurkibidea](#)

Demokrazia eta gobernu ona (Transparencia y buen gobierno)




Egilea: Emilio Guichot Reina
Aranzadi, 2014



Toki-araubidearen erreforma
(La reforma del Régimen Local).

Egilea: Manuel Medina Guerrero
Tirant Lo Blanch
Valentzia, 2014

Informazio gehiago



Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta
iraunkortasunari buruzko Legearen gida praktikoa
(Guía Práctica sobre la Ley de Racionalización y
Sostenibilidad de la Administración Local)

Bertsio eguneratu eta berrikusia
Fundación Democracia y Gobierno Local
2014ko apirila

Ikus aurkibidea



Toki-araubidea arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen erreformaren ostean (El Régimen Local tras la Reforma de la Ley de Racionalización y Sostenibilidad)

Egile nagusia: Cebrián Abellán, Manuel
Argitaletxea: Editorial Bosch, SA
Bartzelona, 2014

DEIALDI INTERESGARRIAK



Herri Administrazioetako Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko V. Kongresua.

Data: 2014ko maiatzak 22 eta 23
Goiuri jauregia, Gasteiz

[Informazio gehiago](#)



Partaidetzazko Demokraziaren Nazioarteko Behatokiaren XVI. Konferentzia

Data: 2014ko ekainak 3, 4 eta 5

[Informazio gehiago](#)



Open Days 2014

2014-2020 aldirako EBren aurrekontuaren esparruan, kohesio-politikak 325 mila milioi euroko inbertsioa egingo du Europako estatu kide, eskualde eta hirietan. Nazio-, eskualde- eta lurralde-mailako 320 lankidetzaprograma baino gehiago abian jarri dira orain dela gutxi, eta horien lehenengo aplikazio-esperientziak eztabaiden abangoardian egon daitezke 2014ko urrian egingo den Eskualdeen eta Hirien Europako 12. Astearen.

[Informazio gehiago](#)

¿zure harpidetza aldatu nahi duzu? **Cambiar la suscripción**
Baja eman nahi baduzu, egin klik hemen **Safe Unsubscribe**